**Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak**
**Udalbatzarraren akta**

**Sesiones de órganos de gobierno colegiados**
**Acta de Pleno**

JUAN AGUSTIN VILLAFRANCA BELLIDO (1, guztira 2)
Secretario
Sinaduraren data: 24/10/2024
HASH: e076869bcef23318d46c5094c22bba9d

BEATRIZ GAMIZ MATA (2, guztira 2)
Alcaldesa / Alkatea
Sinaduraren data: 24/10/2024
HASH: 4741c89a4d1489028fdfbfabc1a3a57d

## EZOHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO

## 2024KO URRIAREN 11A / 11 DE OCTUBRE DE 2024

### ETORRITAKOAK / ASISTENTES

**ALKATE-UDALBURUA / ALCALDESA**
Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE)

**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**
Rosa María Cid Seara (PSE-EE / PSOE)
José Manuel López Conde (PSE-EE / PSOE)
Harri Araiztegi Arrizabalaga (EAJ/PNV)
Mikel Cantero Vidal (EAJ / PNV)

**CONCEJALES / ZINEGOTZIAK**
Juan Carlos Abascal Candás (PSE-EE / PSOE)
Ricardo Martín López (PSE-EE / PSOE)
Miguel Ledesma Piñeiro (PSE-EE / PSOE)
Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu)
Asier Ibaibarriaga Apoita (EH Bildu)
Julen Rodríguez Barrenetxea (EH-Bildu)
Idoia Goikoetxea Guridi (EH Bildu)
Jol Gisasola Garai (EAJ / PNV)
Julen Domínguez Sánchez (ELKARREKIN ERMUA)
Alberto García-Abad Sánchez (ELKARREKIN ERMUA)
Francisco Javier Sánchez Gómez (PP)
Mónica Martín-Lorente Rabanete (PP)

**IDAZKARIA / SECRETARIO**
Juan Agustín Villafranca Bellido

**ZUZENDARI OROKORRA / DIRECTORA GENERAL**
Rosalia Herrera Yuste

**Akta hau Osoko Bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

Udaletxeko bilkura aretoan, 2024ko urriaren 11n 13:00ean, orrialdearen hasieran

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

En el salón de sesiones de la Casa Consistorial, a las 13:00 del día 11 de

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 20

adierazten diren Udaleko kide jaun-andreak lehenengo deialdian bildu dira, ohiko bilkuran.

Idazkari jaunak bilera hasteko behar besteko quoruma dagoela frogatu ondoren, Jarduneko Alkate-udalburua bilkurari hasiera eman dio eta publikoa dela adierazi du. Jarraian gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin dio.

**GAI ZERRENDA**

1. **JULEN RODRÍGUEZ BARRENETXEA EH BILDUKO ZINEGOTZI KARGUAZ JABETZEA**

**Idazkari jaunak** azaldu du Udal honek, 2024ko uztailaren 23an egindako Osoko bilkuran, adierazi zuela Euskal Herria Bildu udal-taldeko kide zen Joanna Díaz Benito andreak bere borondatez egin ziola uko zinegotzi karguari.

Azaldu du Hauteskunde Batzorde Zentralak Julen Rodríguez Barrenetxea jaunaren egiaztagutuna bidali duela, Euskal Herria Bilduk 2023ko maiatzaren 28an egindako udal-

octubre de 2024, en primera convocatoria, se reúnen las señoras y señores miembros de la Corporación antes citados, en sesión ordinaria.

Una vez comprobada por el Sr. Secretario la existencia de quórum necesario para poder iniciar la sesión, la Sra. Alcaldesa-Presidenta en funciones abre la misma y la declara pública. Seguidamente se procede a tratar los asuntos incluidos en el orden del día.

**ORDEN DEL DÍA**

1. **TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL POR EH BILDU DE JULEN RODRÍGUEZ BARRENETXEA**

El **Sr. Secretario** expone que el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 23 de julio de 2024, tomó conocimiento de la renuncia voluntaria de la integrante del grupo municipal Euskal Herria Bildu, Dña. Joanna Díaz Benito, al cargo de Concejala.

Informa que la Junta Electoral Central ha remitido la credencial de D. Julen Rodríguez Barrenetxea, número 5 de la lista presentada por Euskal Herria Bildu a las elecciones municipales celebradas

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 20

hauteskundeetara aurkeztutako zerrendaren 5. postuan zegoena.

el 28 de mayo de 2023.

Idazkaritza honetan jasotako egiaztagutuna edo kredentziala egiaztatu ondoren, Rodríguez Barrenetxea jaunak bete du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan aurreikusitako ondasun- eta jardueren-aitorpenak aurkezteko betebeharra.

Una vez comprobada la credencial recibida en esta Secretaría, el Sr. Rodríguez Barrenetxea ha cumplido con la obligación de presentar las declaraciones de bienes y de actividades previstas en el artículo 75.7 de la Ley de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local

Ondoren, karguaz jabetzen den unean, bere karguaren erabateko izaera eskuratzeko, Konstituzioari men egingo diola zin egin edo promes egin behar du, bai eta kasuan kasuko lege edo erregelamenduetan aurreikusitako gainerako baldintzak beteko dituela ere.

A continuación, en el momento de tomar posesión, y para adquirir la plena condición de su cargo, se debe jurar o prometer acatamiento a la Constitución, así como cumplimentar los demás requisitos previstos en las leyes o reglamentos respectivos.

Karguaz jabetzeko, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak jasotzen duen formula erabiliko du, zin egitea edo promes egitea.

Para la toma de posesión se utilizará la fórmula de juramento o promesa recogida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril.

Jarduneko Alkate-udalburuak izendatuko du Julen Rodríguez Barrenetxea jauna, eta, zutik jarrita, karguari zin egin edo promes egingo dio.

La Sra. Alcaldesa-Presidenta en funciones nombrará a D. Julen Rodríguez Barrenetxea, quien, puesto en pie, prestará juramento o promesa de su cargo.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 20

**Jarduneko Allkate-udalburu andreak** galdera hau egin du:

*"Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten al duzu edo hitz ematen al duzu Ermuko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzo beteko dituzula, Erregearekiko leialtasunez, eta, Estatuaren funtsezko arau gisa, Konstituzioa gorde eta betearaziko duzula?"*

Rodríguez Barrenetxea jaunak hauxe erantzun du: "Legeak behartuta, bai".

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluak eta Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 108.8 artikuluak eskatutako betekizunak bete ondoren, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuaren 1. Artikuluak aurreikusitako formularen arabera hitz eman ondoren, Julen Rodríguez Barrenetxea jaunak Ermuko Udaleko zinegotzi kargua hartu du.

**2. ERMUKO UDALEKO ALKATE BERRIA HAUTATZEA**

La **Sra. Alcaldesa-Presidenta en funciones** realiza la siguiente pregunta:

*"Zure kontzientzia eta ohoreagatik zin egiten al duzu edo hitz ematen al duzu Ermuko Udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak zintzo beteko dituzula, Erregearekiko leialtasunez, eta, Estatuaren funtsezko arau gisa, Konstituzioa gorde eta betearaziko duzula?"*

El Sr. Rodríguez Barrenetxea responde: "Legeak behartuta, bai".

Una vez cumplidas las obligaciones exigidas por los artículos 75.7 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las bases del Régimen Local y 108.8 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, y habiendo prestado promesa de acuerdo con la fórmula prevista en el artículo 1 del Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, D. Julen Rodríguez Barrenetxea ha adquirido la plena condición de Concejal del Ayuntamiento de Ermua.

**2. ELECCIÓN DE NUEVA ALCALDESA O ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE ERMUA**

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 20

**Jarduneko alkate-udalburuak** adierazi du osoko bilkura hau Juan Carlos Abascal Candás jaunak alkate izateari uko egin izanaren ondorio dela. Uko hori 2024ko irailaren 17an aurkeztu zen eta Udalbatzak 2024ko irailaren 30ean onartu zuen.

La **Sra. Alcaldesa-Presidenta en funciones** afirma que esta sesión plenaria es consecuencia de la renuncia a la condición de Alcalde de Don Juan Carlos Abascal Candás, presentada el día 17 de septiembre de 2024 y aceptada por el pleno de la Corporación del día 30 de septiembre de 2024.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 20

**Idazkari jaunak** azaldu du Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 198. Artikuluak hauxe diola:

*“197. eta 197. bis artikuluetan aurreikusitakoez bestelako kasuetan, alkatetzako lanpostu hutsa 196. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ebatziko da, eta, ondorio horietarako, alkatea agertzen zen zerrendako buru izango da, zerrendako hurrengoa, hautagai-zerrendari uko egiten ez badio behintzat”.*

Beraz, jarraitu beharreko prozedura hauxe izango da:

a) Hautagai izan daitezke, 2023ko maiatzaren 28ko udal-hauteskundeetan zerrendaburu izan ziren zinegotzi guztiak.

b) Hautetsia izango da korporazioko kideen botoen gehiengo osoa lortzen duen hautagaia.

El **Sr. Secretario** explica que el art. 198 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General establece:

*"En los supuestos distintos a los previstos en los artículos 197 y 197 bis, la vacante en la Alcaldía se resuelve conforme a lo previsto en el artículo 196, considerándose a estos efectos que encabeza la lista en que figuraba el Alcalde el siguiente de la misma, a no ser que renuncie a la candidatura."*

Por tanto, el procedimiento a seguir será el siguiente:

a) Pueden ser candidatos todos los Concejales y Concejalas que encabezaron sus correspondientes listas en las elecciones locales celebradas el 28 de mayo de 2023.

b) Si alguna de las personas candidatas obtiene la mayoría absoluta de los votos de los miembros de la Corporación es

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 20

proclamada electa.

c) Hautagaietako batek ere gehiengo oso hori lortzen ez badu, herri-boto gehien lortu zituen zerrendako zinegotzia izendatuko da Alkate.

c) Si ninguna de ellas obtiene dicha mayoría, es proclamada Alcaldesa la Concejala integrante de la lista que obtuvo mayor número de votos populares.

Jarraian, hautagai-zerrendak aurkeztuko dira, eta hautagai bakoitzak “Bai” edo “Ez” adirazi beharko du:

A continuación, se procederá a la presentación de candidaturas, debiendo manifestar “Sí” o “No” cada una de las posbiles personas candidatas:

- Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE): Bai.
- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu): Bai.
- Jol Gisasola Garai (EAJ – PNV): Ez.
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua): Bai.
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP): Bai..

- Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE): Sí.
- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu): Sí.
- Jol Gisasola Garai (EAJ – PNV): No.
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua): Sí.
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP): Sí.

**Jarduneko alkateak** adierazi du Ermuko alkate izateko hautagai izendatuta geratzen direla:

- Beatriz Gamiz Mata (PSE-EE/PSOE).

La **Sra. Alcaldesa en funciones** manifiesta que quedan proclamados candidatos a la elección de Alcaldesa o Alcalde de Ermua:

- Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE).

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 20

- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu)
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua).
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP).

Ondoren, **Idazkari jaunak** zinegotzi guztiei dei egin die, abizenen hurrenkera alfabetikoaren arabera, horretarako prestatutako hautestontzian beren botoa utz dezaten.

Bozketa egin ondoren, idazkariak emaitza hau aldarrikatu du:

- Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE / PSOE): 9 boto.
- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu): 4 boto
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua): 2 boto.
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP): 2 boto.

Beraz, Ermuko Udaleko Alkate izendatu dute Udalbatzako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoa lortu duen

- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu)
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua).
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP).

A continuación, el **Sr. Secretario** procede al llamamiento por orden alfabético de apellidos a todas las Concejalas y Concejales para que depositen su voto en la urna dispuesta al efecto.

Una vez realizada la votación, el **Sr. Secretario** proclama el resultado:

- Beatriz Gámiz Mata (PSE-EE/PSOE): 9 votos.
- Paul Yarza Agirregomezkorta (EH Bildu): 4 votos.
- Julen Domínguez Sánchez (Elkarrekin Ermua): 2 votos.
- Francisco Javier Sánchez Gómez (PP) 2 votos.

Por tanto, queda proclamada Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Ermua, la Concejala que ha obtenido la mayoría



Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 20

zinegotzia, Beatriz Gámiz Mata, PSE-EE/PSOEk aurkeztutako zerrendako hautagaia.

absoluta del número legal de miembros de la Corporación, Dña. Beatriz Gámiz Mata, candidata de la lista presentada por el PSE-EE / PSOE.

Ermuko Alkate-Udalburu kargua onartzen duzu?

¿Acepta el cargo de Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Ermua?

**Alkate-udalburuak** honako hau erantzun du: "Bai, onartzen dut".

La **Sra. Alcaldesa-Presidenta** responde: "Sí, acepto".

**Idazkariak** alkate-udalburua gonbidatu du hautatua izan den kargua zin egitera edo agintzera.

El **Sr. Secretario** invita a la Sra. Alcaldesa-Presidenta a jurar o prometer el cargo para el que ha sido elegida.

Alkate-udalburuak honako hau adierazi du:

La **Sra. Alcaldesa-Presidenta** se pronuncia en los siguientes términos:

*"Hitza ematen dut, nire kontzientzia eta ohoreagatik, Ermuko Udaleko Alkate-Udalburu karguaren betebeharrak zintzo eta Erregearekiko leialtasunez beteko ditudala, eta Konstituzioa, Estatuaren funtsezko araua, gorde eta gordearaziko dudala".*

*"Prometo por mi conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Ermua, con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución, como norma fundamental del Estado"*.

Juan Carlos Abascal Candás jaunak makila eman dio Alkatea-udalburuari eta, hitza hartuz, eskerrak eman dizkie zinegotziei, bere aldeko botoa emanez berarengan jarri duten konfiantzarengatik.

La Sra. Alcaldesa-Presidenta recibe de D. Juan Carlos Abascal Candás la makila, e interviene y agradece, en primer lugar, a las Concejalas y Concejales la confianza que han depositado en ella la hora de haber

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 20

apoyado con su voto su investidura como Alcaldesa de Ermua.

Alkate-udalburuak hitza hartu eta honako mintzaldia eskaini du:

La **Sra. Alcaldesa-Presidenta** toma la palabra y pronuncia el siguiente discurso:

Auzokide maiteak, agintari maiteak, familia, lagunak, langileak... eta urte hauetan lagundu didazuen guztiok,

Queridos vecinos y vecinas queridas autoridades, familia, amigos y amigas, trabajadores y trabajadoras…, y a todos los que me habéis acompañado durante estos años,

Gaur hemen, kargu-hartze honetan, zaudeten guztioi zuzentzen natzaizue, eta esker on, erantzukizun, umiltasun eta hitzez nekez deskriba dezakedan emozioak nahastuz egiten dut. Hau ez da edozein egun. Gaur kapitulu berri bat irekiko da gure udalerriaren historian, eta aukeraz beteriko etorkizuna izango denaren lehen orria idazten ari gara.

Hoy, me dirijo a todas las personas que estáis aquí acompañándome en esta toma de posesión. Lo hago con una mezcla de gratitud, responsabilidad, humildad y una emoción que difícilmente puedo describir con palabras. Este no es un día cualquiera. Hoy se abre un nuevo capítulo en la historia de nuestro municipio, y estamos escribiendo la primera página de lo que será un futuro lleno de oportunidades.

Zuen alkate izatea ez da ohore hutsa niretzat; erantzukizuna da, herri honek eta komunitate honek merezi duten errespetu eta maitasun guztiarekin nire gain hartzen dudana.

Ser vuestra alcaldesa no es simplemente un honor para mí; es una responsabilidad que asumo con todo el respeto y el amor que este pueblo y esta comunidad merecen.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 20

Une garrantzitsu honetan, nire pentsamendua zuetako bakoitzarekin dago: zuen babesa eskaini didazuenekin, etorkizun hobe baten ilusioa partekatzen duzuenekin, eta baita Ermuaren alde lanean jarraitzen duzuenokin ere... izan ere, niretzat, guztiok gara protagonista elkarrekin eraikiko dugun horretan, eta denok gara proiektu honen parte.

En este momento tan importante, mi pensamiento está con cada uno de vosotros y vosotras. Con quienes me habéis brindado vuestro apoyo, con quienes compartís la ilusión de un futuro mejor, y también con aquellas personas que desde otras posiciones seguís trabajando por Ermua. Porque para mí, todos tenemos un papel protagonista en lo que construyamos conjuntamente y todos somos parte de este proyecto.

Hausnartzeko unea da hau, orain arte egin dugun bideari eta aurre egin beharreko erronkei buruz hausnartzeko unea. Gaur, inoiz baino argiago daukat zerbitzari publiko hurbila, gardena eta justua izan nahi dudala, belarriak erne dituen alkatea, denen onerako lan egiteko prest.

Este es un momento para reflexionar sobre el camino que hemos recorrido y los retos que afrontamos. Hoy, más que nunca, reafirmo mi compromiso para ser una servidora pública cercana, transparente y justa. Una alcaldesa de oídos atentos y de manos dispuestas a trabajar por el bien común.

Etorkizunerantz begiratu aurretik, gelditu egin nahi dut momentu batez, kargu honetan nire aurretik egon direnei aitormen zintzo eta esker onekoa egiteko; gure komunitatea hobetzeko lan nekaezina egin duten alkateei, gaur ditugun oinarriak sortzeko, gure udalerriari dedikazio eta konpromisoz zerbitzatu diotenei. Zuen bizitzako urteak eman dizkiozue herri honi, bere kaleei, bere jendeari, eta gaur ondare

Antes de mirar hacia el futuro, quiero detenerme un momento para hacer un reconocimiento sincero y profundo a quienes me precedieron en este cargo. A los alcaldes que han trabajado incansablemente para mejorar nuestra comunidad, para crear las bases sobre las que hoy nos apoyamos, y que han servido a nuestro municipio con dedicación y compromiso. Vosotros habéis entregado

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 20

hori ohoratu nahi dut.

Orain arte lan egin dudan bi alkateoi esan behar dizuet zuen ahalegina ez dela alferrik izan. Badakit gobernatzeko lana ez dela erraza. Badakit erronka zailei aurre egin behar izan diezuela, erabaki konplexuak hartu dituzuela askotan, egoera txarretan. Eta badakit, batzuetan, erabaki horiek ez direla ulertu.

Baina gaur, eskerrak ematen dizkizuet hemendik, gure udalerria beti zuen kezken erdigunean jartzeagatik. Eskerrik asko zuen ahalegin handiagatik, asmatutakoagatik, zuen sakrifizioengatik, eta baita une gogorrei ausardiaz aurre egiteagatik ere. Zuek Ermuko historia biziaren parte zarete, eta nik ondare horrekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dut, eraiki zenutenetik ikasiz eta zuek zuen grina berarekin lan eginez.

Eskerrak ematen dizkiet nire taldekideei ere, gehien behar izan dudanean lagundu eta elkartuta

años de vuestra vida a esta ciudad, a sus calles, a su gente, y hoy quiero honrar ese legado.

A los dos Alcaldes con los que he trabajado, quiero deciros que vuestro esfuerzo no ha sido en vano. Sé que la tarea de gobernar no es fácil. Sé que os habéis enfrentado a retos difíciles, habéis tomado decisiones complejas, muchas veces, bajo circunstancias adversas. Y sé que, en ocasiones, esas decisiones no fueron comprendidas.

Pero hoy, desde este lugar, quiero daros las gracias por haber puesto siempre a nuestro municipio en el centro de vuestras preocupaciones. Gracias por vuestra entrega, por vuestros aciertos, por vuestros sacrificios, y también por haber afrontado los momentos duros con valentía. Vosotros sois parte de la historia viva de Ermua, y yo me comprometo a continuar ese legado. Aprendiendo de lo que construisteis, y trabajando con la misma pasión con la que vosotros lo hicisteis.

También quiero dar las gracias a mis compañeros y compañeras de grupo, por apoyarme y permanecer unidos cuando



Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 20

egoteagatik. Ahal den talderik onenaz inguratuta nago, eta harro nago erronka horri zuekin batera aurre egiteagatik. Badakit onena ematen jarraituko duzuela eta horixe eskatzen dizuet. Badakit udalbatza honek Ermuko herritarren ongizatearen alde, elkar hartuta eta elkarrizketaren bidez, lan egingo duela.

Halaber, aitorpen berezia egiten diet gaur, gure herriaren motorra izan diren eta diren kolektibo, elkarte eta mugimendu guztiei; askotan isilean, anonimotasunetik gizarte moduan indartsuago egiten gaituzten kausa eta jarduera komunitarioei, beren denbora, energia eta bihotza eskaintzen dieten pertsona horiei.

Eskerrik asko egunez egun besteen bizitza hobetzen laguntzen duzuen kultur, kirol, gizarte eta auzo-elkarte guztioi… zuen lana behar beharrezkoa da eta sarritan ez da behar beste aintzat hartzen. Herri honen arima zarete eta halaxe aitortu behar dut lehen-lehen egunetik.

más falta ha hecho. Estoy rodeada del mejor grupo posible y me siento orgullosa de afrontar este reto junto a vosotros. Sé que vais a seguir dando lo mejor de vosotros y eso es lo que yo os pido. Confío en que esta corporación municipal al completo trabajará por el bienestar de la ciudadanía de Ermua colectivamente y a través del diálogo.

Hoy también quiero rendir un reconocimiento muy especial a todos los colectivos, asociaciones y movimientos que han sido y son el motor de nuestro pueblo. A esas personas que muchas veces en silencio, desde el anonimato, dedican su tiempo, su energía y su corazón a causas y actividades comunitarias que nos hacen más fuertes como sociedad.

Gracias a todas las asociaciones culturales, deportivas, sociales y vecinales que, día a día, contribuyen a mejorar la vida de los demás. Vuestra labor es fundamental, y a menudo no se reconoce lo suficiente. Sois el alma de este municipio. Y yo quiero reconocerlo así desde el primer día.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 20

Biziki eskertzen eta baloratzen dut elkarte edo kolektibo bateko kide den pertsona bakoitzaren konpromisoa. Bere ahalegina benetako eraldaketa soziala behetik gora, pertsonen arteko elkartasunetik, bata bestearen zaintzatik datorrenaren frogarik handiena da. Alkatetza honetatik, nire konpromisoa da zuekin guztiekin batera lan egiten jarraitzea, zeren ondo dakit gure udalerriko elkarte-sarea ezinbestekoa dela etorkizun bidezkoagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko.

Eta justiziaz eta inklusioaz ari garela, dei argia eta zuzena egin nahi dut: hasten den etapa berri honetan, Berdintasuna funtsezko zutabea izango da; Berdintasuna ez da eskubide bat soilik, gizarte justuago eta oparoago bat eraikitzeko oinarria baizik. Ezin dugu gizarte gisa aurrera egin elkarri eskutik helduta ez bagoaz, eta inor ez dela atzean geratzen ziurtatuz. Pertsona guztiek eskubide berberak izan behar dituzte, dena dela generoa, jatorria, adina edo izaera.

Jakin ezazue, gobernu honek etengabe lan egingo duela desberdintasun-arrakalak

Agradezco y valoro profundamente el compromiso de cada persona que forma parte de una asociación o colectivo. Su esfuerzo es la mayor demostración de que la verdadera transformación social viene de abajo hacia arriba, de la solidaridad entre las personas, del cuidado mutuo. Desde esta alcaldía, mi compromiso es seguir trabajando de la mano con todos vosotros y vosotras. Porque sé que el tejido asociativo de nuestro municipio es vital para construir un futuro más justo, más inclusivo, más solidario y participativo.

Y hablando de justicia e inclusión, quiero hacer un llamamiento claro y directo: en esta nueva etapa que comienza, la Igualdad será un pilar fundamental. La Igualdad no es solo un derecho, sino la base sobre la que debe construirse una sociedad más justa y próspera. No podemos avanzar como sociedad si no lo hacemos de la mano, y asegurándonos de que nadie queda atrás. Todas las personas, sin importar su género, su origen, su edad o su condición, deben contar con las mismas oportunidades y los mismos derechos.

Quiero que sepáis que este gobierno trabajará incansablemente para reducir las

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 20

murrizteko, ekitatea sustatzeko eremu guztietan: enplegurako sarbidean, hezkuntzan, gure udalerriko bizitza kultural eta sozialean. Eta, batez ere, irmoak izango gara edozein diskriminazio-motaren aurkako borrokan, emakumeek, desgaitasuna duten pertsonek, gazteek eta adinekoek beren bizitza osotasunean, errespetuz eta merezi duten aintzatespenarekin garatzea ziurtatuz.

Badakit gure komunitatean isilean borrokatu diren emakumeak daudela, behin eta berriz, ametsak lortzeko, hesiak hautsi behar izan dituztenak. Haiei esaten diet: ez zaudete bakarrik. Nire konpromisoa zuekin da, aukeraz betetako etorkizuna amesten duen neskato bakoitzarekin, ama langile bakoitzarekin, bizitzan zehar komunitate baten indarra komunitate hori osatzen duen pertsona bakoitzaren balioa aintzat hartzeko gaitasunean dagoela erakusten duen emakume bakoitzarekin.

brechas de desigualdad, para promover la equidad en todos los ámbitos: en el acceso al empleo, en la educación, en la vida cultural y social de nuestro municipio. Y, sobre todo, seremos firmes en la lucha contra cualquier tipo de discriminación, asegurando que las mujeres, las personas con discapacidad, las personas jóvenes y mayores, puedan desarrollar sus vidas con plenitud, con respeto y con el reconocimiento que merecen.

Sé que en nuestra comunidad hay mujeres que han luchado en silencio, que han tenido que romper barreras una y otra vez para alcanzar sus sueños. A ellas les digo: no estáis solas. Mi compromiso es con vosotras, con cada niña que sueña con un futuro lleno de posibilidades, con cada madre trabajadora, con cada mujer que, a lo largo de su vida, demuestra que la fuerza de una comunidad está en su capacidad de incluir, de reconocer el valor de cada una de las personas que la integran.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 20

Gobernu hau Berdintasunarekin eta borroka feministarekin konprometituta dago. Emakume guztien eskubideak agenda politikoaren erdigunean egongo dira.

Alkatetza honetatik, indarkeria matxistaren aurka atsedenik gabe borrokatzeko konpromisoa hartzen dut, gure gizartean desagerrarazi arte. Gure erantzukizun kolektiboa da emakume guztiak aske senti daitezen bermatzea. Berdintasunean oinarritutako hezkuntza eta errespetua funtsezkoak dira kultura matxista aldatzeko eta indarkeria mota guztiak ezabatzeko, batez ere emakumeek pairatzen duten indarkeriaren ukazioa hazten ari den une honetan.

Gaur egun alkate kargua hartzea ez da erraza, baina gure herriarekiko dedikazio eta maitasun osoz ekiten diodan lana da. Ez nator soluzio magikoekin edo promesa hutsekin, nekaezin lan egiteko konpromiso sendoarekin nator. Ziur nago benetako aldaketa, bizitzak benetan eraldatzen dituena, pixkanaka eraikitzen dela, ahaleginez, entzunez, elkarrizketaz eta guztion onerako pentsatutako erabakiekin.

Este gobierno está comprometido con la Igualdad. Y con la lucha feminista. Los derechos de todas las mujeres estarán en el centro de la agenda política.

Desde esta alcaldía, me comprometo a luchar sin descanso contra la violencia machista hasta erradicarla en nuestra sociedad. Es nuestra responsabilidad colectiva garantizar que todas las mujeres se sientan libres La educación en igualdad y el respeto son fundamentales para cambiar la cultura machista, y para eliminar todo tipo de violencias, sobre todo en este momento donde crece el negacionismo sobre la violencia que sufren las mujeres.

Asumir hoy el cargo de alcaldesa no es una tarea sencilla, pero sí es una labor que emprendo con absoluta dedicación y amor por nuestro pueblo. No vengo con soluciones mágicas ni con promesas vacías; vengo, con el firme compromiso de trabajar incansablemente. Vengo con la convicción de que el cambio real, el que verdaderamente transforma vidas, se construye poco a poco, con esfuerzo, con escucha, con diálogo y con decisiones pensadas para el bien común.

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 20

Nire kudeaketan lehentasun argiak egongo dira. Funtsezkoa da lanean jarraitzea gure bizilagun guztien bizi-kalitatea hobetzeko. Horrek esan nahi du gure zerbitzu publikoak indartzea, gure kaleak seguruak eta garbiak izaten jarraituko dutela ziurtatzea, gure udalerriko txoko bakoitzak merezi duen arreta jasoko duela ziurtatzea, kaleetako argiztapenetik hasi eta azpiegiturak hobetzeraino. Ez diogu lan egiteari utziko herritar bakoitzak toki zaindu, duin eta oparoan bizi dela sentitu arte.

En mi gestión, habrá prioridades claras. Es fundamental seguir trabajando para mejorar la calidad de vida de todos nuestros vecinos y vecinas. Eso significa fortalecer nuestros servicios públicos, asegurarnos de que nuestras calles sigan siendo seguras y estén limpias. Asegurarnos de que cada rincón de nuestro municipio reciba la atención que merece. Desde la iluminación de las calles, hasta la mejora de las infraestructuras, no dejaremos de trabajar hasta que cada ciudadano y ciudadana sienta que vive en un lugar cuidado, digno y próspero.

Argi utzi nahi dut gobernu hau ez dela bakarrik promesen gobernua izango; egitateen gobernua izango da, gertuko gobernua, gardena eta elkarrizketara irekia. Alkatetza honetako ateak beti egongo dira zabalik nire herriko bizilagunentzat.

Quiero dejar claro que este gobierno no será solo un gobierno de promesas; será un gobierno de hechos, un gobierno cercano, transparente y abierto al diálogo. Las puertas de esta alcaldía estarán siempre abiertas para mis vecinos y vecinas.

Entzuten duen alkate bat izango naiz, zuen eguneroko bizitzan presente dagoena, zuen kezketan inplikatzen dena eta erantzukizunez jokatzen duena. Horixe da nire konpromisoa.

Seré una alcaldesa que escucha, que está presente en vuestras vidas cotidianas, que se involucra en vuestras preocupaciones y que actúa con responsabilidad. Este es mi compromiso.

Gure gazteentzat aukera berriak sortzen ahaleginduko naiz. Etorkizuna dira, eta

Quiero enfocarme en crear nuevas oportunidades para nuestras personas

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 20

gure ardura da hemen, Ermuan, garatu ahal izateko beharrezko tresnak eskaintzea, hemen, gure artean, bizi, lan egin eta gozatu ahal izan dezaten. Ez dut nahi gure gazteak kanpora aukera bila joan behar izatea; herri honetan beren ametsak egia bihurtzeko lekua aurkitzea nahi dut.

Eta, jakina, ez ditugu ahaztuko gure adinekoak, gure komunitatearen alde hainbeste eman dutenak. Merezi duten arreta, babesa eta errespetua emango dizkieten programak ezarri eta indartuko ditugu.

Ez dugu inor atzean utziko. Udalerri honetako bizilagun bakoitza garrantzitsua da, eta zuekin guztiokin eta bakoitzarekin dut konpromisoa.

Gaur, inoiz baino gehiago, proiektu honen parte izatera gonbidatzen zaituztet. Gobernu hau ez da nirea bakarrik, guztiona da. Zuen parte-hartzea behar dut, zuen ideiak, zuen energia. Elkarrekin lan egiten badugu bakarrik eraiki ahal izango dugu nahi dugun etorkizuna, badakit-eta batasunak indartsuago egingo gaituela, desberdintasunek aberastu, eta komunitate

jóvenes. Son el futuro, y es nuestra responsabilidad brindarles las herramientas necesarias para que puedan desarrollarse aquí, en Ermua. Para que puedan vivir, trabajar y disfrutar aquí, entre nosotros. No quiero que tengan que irse en busca de oportunidades; quiero que encuentren en este municipio el lugar donde puedan hacer realidad sus sueños.

Y, por supuesto, no nos olvidaremos de nuestras personas mayores, quienes han dado tanto por nuestra comunidad. Implementaremos y fortaleceremos programas que les brinden la atención, el apoyo y el respeto que merecen.

No dejaremos a nadie atrás. Cada vecino y vecina de este municipio es importante, y mi compromiso es con todos y cada uno de vosotros y vosotras.

Hoy, más que nunca, os invito a ser parte de este proyecto. Este gobierno no es solo mío, es de todos y todas. Necesito vuestra participación, vuestras ideas, vuestra energía. Solo si trabajamos juntos podremos construir el futuro que deseamos. Porque sé que la unidad nos hará más fuertes, que las diferencias nos enriquecen, y que la verdadera fuerza de



Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 20

baten benetako indarra helburu partekatu baten inguruan elkartzeko gaitasunean oinarritzen dela.

Esan dizuet ideiei ateak ireki nahi dizkiedala eta, horregatik, zuetako bakoitzak modu aktiboan parte hartzera dei egiten dizuet, uste baitut aldaketaren boterea lankidetzan, elkartasunean eta gure gizartea hobetzeko borondate komunean dagoela.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet nire familiari, nire senarrari eta alabei, nire lagunei, nire alderdikideei, taldekideei eta ibilbide honetan nire ondoan egon diren pertsona guztiei. Zuek gabe, ez nintzatekeen honaino iritsiko

Zuen babesa funtsezkoa izan da, zuen maitasuna eta nigan duzuen fedea nire motorra izan dira unerik zailenetan, eta badakit hala izaten jarraituko dutela.

Eskerrik asko bihotzez beti hor egoteagatik.

*Eta, batez ere, eskerrik asko zuei, zuen botoa eta konfiantza eskaini diguzuen*

una comunidad reside en su capacidad para unirse en torno a un objetivo compartido.

Os decía que quiero abrir las puertas a las ideas y, por eso, hago un llamamiento a la participación activa de cada uno de vosotros y vosotras. Porque creo firmemente que el poder del cambio está en la colaboración, en la solidaridad, y en la voluntad común de mejorar nuestra sociedad.

Finalmente, quiero agradecer a mi familia, a mi marido y a mis hijas, a mis amigos y amigas, a mis compañeros y compañeras de partido, de agrupación y a todas las personas que han estado a mi lado en este recorrido. Sin todos vosotros/as, no habría llegado hasta aquí.

Vuestro apoyo ha sido fundamental, vuestro cariño y vuestra fe en mí han sido mi motor en los momentos más difíciles y sé que lo seguirán siendo.

Gracias de corazón por estar siempre ahí.

Y, sobre todo, gracias a vosotros y vosotras, a todos los ciudadanos que nos

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 20

*herritar guztioi. Zin egiten dizuet egunero ahal dudan guztia egingo dudala guztiok merezi dugun etorkizuna eraikitzeko. Gaur aro berri bat hasten da.*

Eskerrik asko - Muchas gracias

habéis confiado vuestro voto y confianza. Prometo dar lo mejor de mí cada día para construir el futuro que todos y todas merecemos. Hoy comienza una nueva etapa.

Eskerrik asko - Muchas gracias

Bilkura honetan aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Alkate-udalburua andreak bilkura bukatutzat jo du 13:45 eta nik, Idazkaria naizenez, guztiaren fede eman dut.

Akta honek hamar orri dauzka alde bietatik idatzita eta 299tik 316ra zenbakituta.

No habiendo más asuntos a tratar, de orden de la Sra. Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la misma a las 13:45 del día de la fecha de todo lo cual como Secretario doy fe.

Consta esta acta de diez folios, escritos por ambas caras, numeradas del 297 al 316

Baliozkotze Kod.: 673WDFQFDESCYT6S5GYDFH7SJ
Egiaztapena: https://ermua.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 20